

MEMORIA

2024

MEMORIA

2024

MEMORIA

EU

**MUSIKA
BULEGUA**

Batzen
gaituena.

MEMORIA 2024

AURKIBIDEA

- 01. 2024 URTEKO LABURPENA**
- 02. 2024 DATUETAN**
- 03. PROIEKTUAK ETA ZERBITZUAK**
- 04. KOMUNIKAZIOA**
- 05. KUDEAKETA**

01. 2024 URTEKO LABURPENA

2024 trantsizio-urtea izan da Musika Bulegoarentzat. Helburu nagusia erakundearentzat inflexio-puntu bat izango diren oinarri berriak finkatzea izan da. Urte hasieran plan estrategikoa onetsi ondoren, elkarteak barne-mailan lanean eta hausnarketan jarraitu du, barne-egitura indartzeko eta argitzeko asmoz. Maila operatiboan, antolaketaren berregituraketa bat egin da, taldean lan egiteko modu berri bat ezarri duen ikuspegi integratu batekin, hiru sail sortuz: *Komunikazioa*, *Proiektuak eta Zerbitzuak* eta, azkenik, *Gerentzia-Administrazioa*. Sistema berri honen bidez, Euskal Herriko musikaren sektorea erdigunean jarri nahi da, eta, beraz, Musika Bulegoaren eskaintza sektorearen behar eta interesetara egokitu. Azkenik, eskaintza etengabe hobetzeko lanean jarraitu da, lan-metodologia eta ebaluazio-sistema berriak ezarriz.

Urtean zehar 47 jarduera egin dira, zeintzuetan 4.900 pertsona inguruk parte hartu duten. Jarraipena eman zaie aurreko urteetako lan-ildoei: aholkularitza, prestakuntza, sorkuntza, sustapena eta kanpo-hedapena. Proiektuen atalean zehatzago azaltzen da urtean zehar egindakoa. Aldi berean, sektorearen interesak defendatzeko eta dauden arazoak jakinarazteko helburuarekin, ohiko bitartekaritza-lanarekin jarraitu da: sektorea

eta administrazio publiko, zein sektorerako garrantzitsuak diren entitate/erakundeen artean jardunez.

Komunikazio-arloak jauzi kualitatiboa izan du, Komunikazio Sail berria sortzearen eta 2024-2026 Komunikazio Plana onartzearen ondorioz. Gainera, ikusizko identitatea eta web orriaren berritze-lanak hasi dira, 2025. urtearen hasieran aurkeztuko direlarik. Eragin mediatiko handiagoa lortu da, alde batetik sailak egindako lanaren ondorioz eta baita EITB, Berria eta Grupo Noticias taldeekin itxitako lankidetzak-akordioei esker ere. Eta, sare sozialei hazkundera dagokienez, nabarmentzekoa LinkedIn sare profesionalean jarraitzaileen kopurua % 200an igo izana.

Ekonomiaren arloan, aurrekontuak 600.000 euroak gainditu ditu. Horrela, finantza-egonkortasunari eta proiektu berrietan inbertitzeko gaitasunari eutsiz. Gainera, aurrera egin da 2025erako aurreikusitako ERP-CRM barne-kudeaketa sistema berriaren ezarpenean.

Musika Bulegoak emaitza positiboarekin itxi du 2024a: egitura indartua, komunitate profesional gero eta aktiboagoa eta estrategia sendoa 2025eko 10. urteurrenari begira.



02.

2024 DATUETAN

2024ean erakundeak 4.900 erabiltzaileri arreta eman eta 11 deialditara 388 proposamen bideratu ditu.

4.900 → 11 → 388

25 ekimen ezberdinetan parte hartu du eta 47 jarduera eraman ditu aurrera.

25 → 47
EKIMEN JARDUERA

JARDU- ERA

11

KONTZERTU

6

WEB-MINTEGI

2

TOPAKETAK

8

TAILER

4

HITZALDI

2

EGONALDI-ARTISTIKO

7

DEIALDI

4

MAHAI-INGURU

1

SARIEN-GALA

1

IKASTARO

1

AHOIKULARITZA-
ZERBITZUA

Horrez gain,
10 azokatan presentzia
eduki du, hauen
inguruan jarduera
anitzak antolatuz:

7

SHOWCASE

4

DEIALDI

4

AURKEZPEN

10

AZOKA

3

EGONALDI-ARTISTIKO

2

TOPAKETA

1

MAHAI-INGURU

03.

PROIEKTUAK ETA ZERBITZUAK

Proiektu eta Zerbitzuen Saila, Musika Bulegoan bertan gertatutakoarekin bat etorriz, aldaketa sakoneko prozesu batean murgilduta egon da, bereziki 2024ko bigarren erdian. Aldaketa horren gakoak antolamendua berregituratzea, ikuspegi integratu baten gainean lan egitea eta taldean lan egiteko modu berri bat ezartzea izan dira. Sistema berri horren bidez, sektorea erdigunean jarri nahi da, eta, beraz, Musika Bulegoaren eskaintza sektorearen beharretara eta interesetara egokitzea. Sistema berri hori 2024ko udazkenean abiarazi zen, baina 2025ean zehar garatzen, egokitzen eta hobetzen jarraituko du.

Sailaren egituraketa berria izan da aldaketarik nabarmenena, koordinazio-arduradun batek eta proiektuez arduratzen diren bi teknikariz osatuta. Egiturazko planteamendu berriak hainbat abantaila ekarri ditu, hala nola sailean garatzen diren proiektu motei dagokienez koherenteagoak eta efizienteagoak izatea, erantzukizunak argiago izatea eta eskura dauden baliabideak hobeto kudeatzea. Bi noranzko koordinazioak –kanpoko, eragile zein erakundeekin, baita erabiltzaile eta bazkideekin ere; eta barnekoa Musika Bulegoko sail eta taldeko kideen artekoa– lan-fluxua handitzeko oinarriak finkatzea ahalbidetu du, bai eta eraginkortasun-ezak mugatzea eta irizpide estandarizatu bat ezartzea hasieratik bukaerara edozein proiektu garatzeko.

Bigarren gakoak Musika Bulegoa osatzen duen taldearen garapenari dagokionez 2024an hasi den lanari buruzkoa da. Horren ondorioz, besteak

beste, proiektuaren ideia partekatu bat definitu da. Proiektu eta Zerbitzuen sailak lanketa horri elkarrikeria ireki eta jarraitu baten bidez ekin dio; non kideek ideiak, proposamenak eta hausnarketak egin dituzten. Ikuspegi partekatu horri esker, pixkanaka erritmo egokitua eta sinkronikoa hartzen joan da lantzen diren proiektu eta zerbitzuei ekiterakoan.

Azkenik, eta hirugarren funtsezko gai gisa, prozeduraren ikuspegitik, eta Musika Bulegoaren Zuzendaritzak ezarritako irizpideari jarraituz, Proiektu eta Zerbitzuen Sailak barne antolaketa- eta metodologia-sistema bat ezarri du, saila osatzen duten pertsonen artean eta gainerako sailekin kohesionatuago eta integratuago lan egiteko modu bat eratzeko. Sistema hori etengabe hobetzen ari da, eta egoera berrien aurrean azakar egokitu eta aldatzeko aukera ematen du. Ildo horretan, nabarmentzekoa da aurrerapauso handia izango dela 2025ean ODOO (ERP-CRM) bezalako tresna integral bat ezartzea, lan-esparru kohesibo, efiziente eta normalizatzaile bat ezarriko duena.

Finantza-baliabideei dagokienez, 2024an Sailerako aurreikusitako partida 213.000 eurokoa izan da; honek, berekin ekarri zuen Euskal Herriko musikaren sektore profesionalari zuzendutako hainbat proiektu eta zerbitzu abiaraztea. Proiektu eta zerbitzu horien errepasoa egin da hurrengo kapituluetan, eta 3 atal handitan bildu dira: etengabeko hobekuntza, aukera berriak eta jarduerak.

03.1

ETENGABEKO HOBEEKUNTZA

"Etengabeko hobekuntza" deitu dugun atal honetan parte hartu duten erabiltzaileen eta erakundeen ezagutzaren esparruan balioa sortu duten jarduera guztiak biltzen dira. Atal honen helburua zerbitzu horien hartzaile publikoak izan ditzazkeen arazo eta askotariko kasuistikekin laguntzea eta aholkatzea da, bai eta horien trebetasunak eta ezagutza areagotzea ere. Bi gai horiei erantzuteko, bi jardun-arlo nagusi eratu dira: aholkularitza eta prestakuntza.

Aholkularitza

Web-mintegia

Formatu honi esker modu erraz eta samurrean konektatu ahal izan da sektore profesionaleko kideekin, gai garrantzitsuei heltzeko, hala nola finantzaketa-tresnak, laguntza publikoak, pizgarri fiskalak edo jabetza intelektuala. Landutako gaiek izaera zerbait teknikoa dutenez, aipatutako arlo bakoitzeko espezialistek parte hartzea behar izan da, hizlari gisa. Hainbat web-mintegi erakunde publikoekin lankidetzan antolatu dira.

2024ko martxotik abendura bitartean, 6 web-mintegi egin dira. Mintegi horietan 154 pertsonak parte hartu dute, eta honako eduki espezifiko hauek jorratu dira:

- Creativity World Forum (Eusko Jaurlaritzarekin)
- Finantzaketa-tresnak Euskadin
- Musika-jarduera profesionaletarako dirulaguntzak (Eusko Jaurlaritzarekin)
- Kultura sustatzeko eta banatzeko dirulaguntzak (Eusko Jaurlaritzarekin)
- Bideojokoaren sektorea, podcasta eta sorkuntza digitalerako beste modu batzuk sustatzeko laguntzak.
- Euskal musika-sektorea finantzatzeko aukerak (Europa Sortzailea Kultura programarekin eta Europa Sortzailea Desk MEDIA Euskadirekin)

Erantzundako kontsultak

Web-mintegi formatuan jorratzen diren interes orokorreko gaiei buruzko talde-aholkularitzaz gain, Musika Bulegoak zuzeneko aholkularitza pertsonala eta espezifiko eskaintzen du; sektoreko pertsonak eta/edo erakundeek beren lanbide-jardueran izan ditzaketen gai, arazo edo galderentzako. Kontsulta horiek Musika Bulegoaren kanal formalaren bidez jasotzen dira, eta, kontsulta-esparruaren arabera, erantzun edo ebazpen bat emateko erakundearekin lan egin duen pertsona edo erakunde espezialistari zuzentzen zaio.

2024an, 26 kontsulta bideratu dira guztira.

Gai nagusiak

Aholkularitzaren jardun-arloan jorratu diren gai nagusiak honako hauek izan dira: eskubideen kontratazioa eta kudeaketa, fiskalitatea, markaren eta irudiaren babesa, esportazioa eta nazioartekotzea, laguntza publikoak, biren eta kontzertuen kudeaketa, kudeaketa aplikazio eta tresna berriak, sektoreko eta laneko araudia, komunikazio eta marketin digitaleko estrategiak, genero-berdintasuna edo jasangarritasuna.

Prestakuntza

IZENBURUA	FORMATUA	DESKRIBAPENA	BERTARATUAK
Zure musika zabaltzeko aukera berriak	Tailerra	Tailer hau MIE elkartearen laguntzarekin egin da, eta Leire Gandariasek eman du. Prestakuntza banaketa digitalean zentratu da, musika-sustapenaren funtsezko alderdi gisa.	5
Jabetza Intelektuala: Oinarrizko online tailerra	Tailerra	Tailer hau Musikari elkartearen laguntzarekin egin da, eta Ainara Legardonek eman du. Prestakuntzak jabetza intelektualaren zirrikituak eta haren aplikazioa ulertzeko funtsezko alderdiak jorratu ditu.	15
Plataforma digitalean banatzea	Tailerra	Tailer hau SGAEren laguntzarekin egin da, eta Bruno Zabalak eman du. Eskainitako <i>masterclass</i> aren ardatza musika-proiektu baten banaketarako hurbilketa praktikoa izan da.	14
Musi-Meet	Konferentzia	Hitzaldi hauek Musikagileak elkartearekin batera antolatu dira, eta musika-sorkuntza garaikidearen egoera hainbat ikuspegitatik eta sektoreko erreferenteen eskutik aztertzean oinarritu dira.	141
MUSIKARIEN egile-eskubideen kudeaketari buruzko ikastaro praktikoa	Tailerra	Tailer hau SGAEren laguntzarekin egin da, eta SGAEko teknikari batek eman du. Egile-eskubideen kudeaketan zentratu da tailerra.	4
Publishing	Tailerra	Tailer hau SGAEren laguntzarekin egin da, eta Ibai Machinek eman du. Ikastaro honen helburua izan da bertaratutakoak egile-eskubideen eta <i>publishing</i> aren eremuan gaitzea.	7

03.2

AUKERA
BERRIAK

Atal honetan, 2024an sormen-eremuari lotutako profilentzako, hau da, musikari, interpretetazaille eta konpositoreentzako, aukerak eskaintzen dituzten testuinguruak sustatzeko funtsezkoak izan diren jarduerak laburbiltzen dira. Hiru jarduera-eremu handitan bildu dira, bakoitzaren ekintza-esparruaren arabera: egonaldi artistikoak, topaketa profesionalak eta kanpo-hedapena.

Egonaldi artistikoak

2024an, bi egonaldi artistiko egin dira (Errotik eta Iparhots), eta hirugarren baten hasierako faseetan lan egin da (R.E.A.C.H.), 2025eko urtarrilean gauzatu dena. Egoitza artistiko horietan, lan-testuinguru gainbegiratua eta egonkorra eskaini da, parte-hartzaileek sortu, esperimentatu eta ikertu ahal izan dezaten. Musika Bulegoak finantza-baliabideak, laguntza, truke-aukerak eta erakusketa-leihoak eskaini ditu.

IZENBURUA	DESKRIBAPENA	ARTISTAK
Iparhots	4 erakunderen (Musika Bulegoa, EKE, Atabal eta Dinamoa) artean sortua egoitza da, euskaraz egindako Iparraldeko musika-proiektuak hedatzen laguntzeko. Proiektu musikal bat hautatzen da Azpeitiko Dinamoa espazioan 2 egunez eta Biarritzeko Atabalen beste 2 egunez bizitzeko. Espazio horietako kideei laguntzeak artista aberasten du eta haren sormen-garapenean laguntzen du.	Ekhi Lambert (RTZ kolektiboa)
Errotik	Ekuatore Ginean garatu den egoitza artistiko bat izan da, Batako Espainiako Kultur Zentroaren lankidetzarekin. Bi txalapartari aukeratu ziren euskal tradizioa eta Afrikako soinuak konbinatu zituen elkarrizketa musikal bat esploratzeko, beren kultura-sustraiak ezagutu eta konektatzeko asmoz. Egonaldi hori dokumental formatuan grabatu zen, eta, geroago, Amuak bezalako documental-jaialdietan aurkeztu da.	Mikel Ugarte Manu Gaigne
R.E.A.C.H.	Proiektua EBeko Erasmus+ programari esker sortu zen, erakunde hauek parte hartu dute bertan: Combustible (Biarritz), Clive Davis Institute of Recorded Music (New York), Vectorealism (Milan), Atabal Aretoa (Biarritz) eta Musika Bulegoa. Proiektu honen helburua talentu gazteen sorkuntza artistikoa bultzatzea da, bereziki kultura minoritario edo ingurune alternatiboena. Horretarako, mentoretza-programa bat eratu da, musika-proiektuetan lan egin duten nazionalitatetako ezberdinetako bost pertsonen osatutako lau talderentzat. Hau 2025eko urtarrilean gorpuztu da, egonaldi artistiko batean eta, ondoren, Biarritzeko Atabal aretoan egin den erakusketa batean.	

Topaketa profesionalak

Topaketa profesionalen helburua sortzaile kolektiboaren erakusketa- eta hedapen-alderdietan zentratzen dira. Euskal sareetako (batez ere publikoak) programazio-arduradunen artean lanak sustatzeko 2 topaketa antolatu dira profesionalekin, non artistek zuzenean jo duten showcase formatuan. Formatu azkar eta laburrari esker, programatzaileek hamar bat musika-proposamen ikusteko aukera daukate, zuzenean eta goiz bakar batean. Horrez gain, programatzaileek informazio-book bat eskuratzen dute ikusi duten proposamen bakoitzari buruz, bai eta deialdian aurkeztu diren baina hautatu ez diren beste proposamen batzuen ere.

Sarea

Urteko lehen hitzordua apirilean izaten da, Elorrioko Arriola antzokian, eta SAREA Euskadiko Antzokien Sarea erakundeko kideei zuzenduta dago. Hautatutako 10 proiektuak aurkeztu ondoren, profesionalen eta artisten arteko networking-saio bat burutu zen. Sareko 34 programatzaile bildu ziren hautatutako proiektuei buruz gehiago jakiteko.

Da Pro

Urtearen bigarren erdian, Durangoko Azokaren sarrera gisa, Da Pro ospatzen da Gerediaga Elkartearekin batera. Jarduera honen berezitasuna deialdira aurkeztu diren banda guztiek beren musika euskaraz kantatu eta/edo ekoizten dutela da. Oraingoan, sare publiko eta pribatuetako 54 programazio-arduradun joan ziren hitzordura, non 10 artistek 10 minutuko showcase formatuan erakutsi zuten haien musika.



Kanpo-hedapena

Road Map

Kanpo Zabalkundearen lan-arloa oso kontuan hartzekoa da 2000. urteko preludio digitaletik murgilduta dagoen testuinguru globalean. Merkatu globala erronka bihurtu da, eta artisten komunitate osoak aurre egin behar dio bere karrera profesionalaren uneren batean. Musika Bulegoak, Eusko Jaurlaritza eta Etxepare Euskal Institutua bezalako erreferentzia goreneko bi erakunderen lankidetzarekin batera, BASQUE.MUSIC. marka eratu du. Marka horren helburu nagusia da Euskal Herriko sortzaile-komunitate osoari euskarria, laguntza eta erraztasunak ematea, Euskal Herria osatzen duten mugetatik harago doazen merkatuetan egiten dituzten proiektuak hedatzen eta sustatzen laguntzeko.



2024an, merkatu hauetan egon da BASQUE.MUSIC.en ordezkari-tza, Musika Bulegoaren ordezkariaren bidez:

- **ESNS**
(Groninga, urtarrila 17-19)
- **BIME Bogotá**
(Bogotá, maiatza 8-11)
- **Imaterial**
(Evora, maiatza 17-25)
- **Classical: NEXT**
(Berlin, maiatza 12-15)
- **MIL Lisboa**
(Lisboa, maiatza 25-27)
- **MMVV**
(Vic, iraila 18-21)
- **WOMEX**
(Manchester, urria 23-27)
- **BIME Bilbao**
(Bilbo, urriaren 29tik azaroa 1era)

Guztira, Euskal Herriko 8 artista edo bandak eskaini ahal izan dute erakusketa bat (showcase) merkatu horietako batzuetan. Honako hauek izan dira:

1. **Divorce from New York ESNS**
Showcasera 150 pertsona bertaratu ziren.
2. **Izaro BIME Bogotan**
Showcasera 200 pertsona bertaratu ziren.
3. **Gorka Urbizu eta Mikel Azpiroz MMVV**
500 eta 46 pertsona bertaratu ziren, hurrenez hurren, 2 showcase-etara.
4. **Alai Lisboa MILen**
52 pertsona bertaratu ziren showcasera. Showcasea Alaik Lisboa, Sonia Trópicos artista portugaldarrarekin batera, egin duen 5 eguneko egonaldi artistikoaren emaitza izan da.
5. **La Furia, Montana eta EZEZEZ**
Guztira 803 pertsona bertaratu ziren 3 showcase-etara.

03.3

JARDUERAK

Atal honetan, Musika Bulegoak 2024an musikaren sustapenarekin zuzenean lotuta dauden proiektuen errepaso laburra egin nahi izan dugu. 6 proiektu desberdin dira, eta helburu espezifiko desberdinak betetzen dituzte, baina premia bat partekatzen dute Euskal Herriko musikaren sektore profesionala ikusaraziko duten ekintzak bultzatzeari dagokionez.

Musika Bulegoa Sariak



Musika Bulegoaren sarien zortzigarren edizioak euskal musika sektoreari balioa ematen dion lehiaketa bat finkatu du. Aurreko urtean argitaratutako artisten sorkuntzak sustatuz, haien lanak ezagutzera emanez eta bultzada eta erakusleirio gisa jardunez. Musika Bulegoak bultzatutako ekimen honen helburua Euskal Herrian sortutako eta ekoizitako musikaren kalitatea eta euskal kulturari egindako ekarpena aitortzea da.

2023ko deialdi publikoan zehar 104 lan-proposamen jaso dira, eta epaimahai profesional batek 8 lan azpimarragarrienak hautatu ditu, aurrez ezarritako balorazio -irizpideen arabera. Bestalde, Musika Bulegoak eta Etxepare Institutuak beren sariak eman dituzte, eta publikoak boto telematikoaren bidez hautatu du hamaikagarren irabazlea. Nabarmendu behar da saritutako 8 lanek eta Etxepare Musika Sariak 2.000 euroko ordaina dutela. 2024ko 11 irabazleak hauek izan dira:

- Bas(h)oan
- BilboSinfonietta
- Ibil Bedi
- Izaro
- Janus Lester
- Rüdiger
- Zetak
- "Irati" filmaren soinu-banda
- Euskal Barrokensemble (Etxepare Musika Saria)
- Gor Diskak (EHMBEren ohorezko saria)
- ESAS (Publikoaren Saria)

Musikaren Eguna

2024an, Musika Bulegoak arreta berezia jarri du Musikaren Egunaren ospakizunean, ekainaren 18tik 21era bitartean Euskal Herriko hainbat herritan antolatutako jardueren bidez. Hona hemen Musika Bulegoak antolatutako 2 jarduerak:

- **Ekainak 20:**
Inprobisazio-tailerra Santikurutze Kanpezuko (Araba) Mendialdea ikastetxeko ikasleekin, non 20 lagunek parte hartu zuten.
- **Ekainaren 21a:**
Eire eta Hofe x 4:40 taldeen kontzertua, Bermeoko Kafe Antzokian (Bizkaia).
150 eta 300 pertsona bertaratu ziren, hurrenez hurren.

Gainera, Musika Bulegoak beste 4 jarduera babestu ditu, beste antolatzaile batzuek antolatutakoak:

- **Ekainak 18:**
"Euskelelea" ipuin musikatua, Euskal Barrok Ensemblek zuzendua. Eibarko Coliseo antzokian (Gipuzkoa).
- **Ekainak 19:**
"Emakumeak musikaren industrian" mahai-ingurua Amorebieta-Etxanon (Bizkaia).
- **Ekainak 20:**
"Gure musika eredu" kontzertua Izarrako (Araba) Urkabustaiz antzokian.
- **Ekainaren 20a:**
Jogurinha Borova (haurrentzako emanaldia), Haize-Arrosa, Eider eta STRren kontzertuak Amorebieta-Etxanon (Bizkaia).



Soinua Iratzarri

Soinua Iratzarriren VII. edizioa, , musika garaikidea sortzeko laborategia izan da beste behin. Bertan, Euskal Herriko bi eskolako 10 eta 12 urte bitarteko haurrek seihileko batean lan egin dute musikari eta konpositore talde batekin, azken kontzertu batean jendaurrean estreinatu diren musika-lanak sortzeko.

Proiektu honetan parte hartu duten bi ikastolak Anoetako Herri Ikastola (Anoeta) eta Toki Alai Ikastetxea (Irun) izan dira. 200 ikasle inguruk parte hartu dute sortutako lanaren konposizioan eta amaierako erakusketan. Anoetako kontzertura 97 pertsona hurbildu ziren, eta Irunera 158.



Musika, berdintasuna eta LGTBQ +



"Musika, berdintasuna eta LGTBQ+" jardunaldien bigarren edizioa Tabakaleran (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Donostia) egin da. Proiektu honen helburua da LGTBQ+ kolektiboak musika-sektorean duen egoera ikusaraztea eta horri buruz hausnartzea. 200 bat pertsonak parte hartu dute programatutako jardueretan. Jardunaldi bikoitzaren programa hurrengoa izan da:

• Osteguna, otsailak 29.

- 17:00:

Jardunaldien aurkezpena (Z aretoa)

- 17:15:

Ander Prolen hitzaldia: "Euskal musika eta aniztasun sexuala" (Z aretoa)

- 18:30:

Anouar Merabet-en hitzaldia: "Ballroom kultura" (Z aretoa)

- 19:30:

Mahai-ingurua: Victoria Sickness, Hipogrifa, Contamina Perpétua, Cachorro eta Koraje: "Musika, identitate ez-normatiboak eta disidentzia" (Z aretoa)

- 21:00:

Kiltreo Oskuroren eta Las Marikarmenen kontzertua (Kutxa Fundazioa Kluba)

• Ostirala, martxoak 1.

- 17:30:

Raquel García-Tomas: "Alexina B-ren sorrera eta estreinaldia Bartzelonako Gran Teatre del Liceu-n, Herculine Barbin-i buruzko opera bat, haren memoriak ezagutzen ditugun lehenengo pertsona intersexuala"

- 18:45:

Eztabaida-mahaia Elisa Rapado, Raquel García-Tomás eta Miren Iñargarekin: "Emakumeak musika klasikoan"

- 20:00:

Adriana Viñuelaren kontzertua (sopranoa), Elisa Rapado (pianoa): "Harrotasuna eta aurreiritzia: Identitate ezkutuak eta amoreak, abesti lirikoan kamuflatuak"

Atlantikaldia

2024an Atlantikaldia kultura-topaketa eta musika-jaialdiaren hamaikagarren edizioa Errenterian egin da. Jaialdiaren antolakuntzarekin lankidetzan, Musika Bulegoak sorkuntza-tailer bat antolatu du haurrentzat, gazteen artean musika-sormena sustatzeko eta esperimentatzeko. Gasteizko Creative Soul musika-eskolak zuzendu du tailerra, metodologia praktiko baten bidez, non parte hartu duten 54 hurrek hainbat tresna erabili dituzten.



Villa Sound Bilbao

Villa Sound Bilbao tokiko talde gazteak sustatzeko zein ikusarazteko eta egungo musika-panorama Bilboko hirira hurbiltzeko musika-programa bat da. Laguntzaren eta prestakuntzaren bidez, talde gazteen talentua Bilbon eta Bilbotik kanpo proiektatzea du helburu.

2024ko edizioan, epaimahaiak Euskal Herriko 12 banda edo bakarlari gazte hautatu ditu. Bilborocken 4 kontzertutan parte hartu dute. Gainera, hautatutako bandek edo bakarlarien jarduera profesionalizatzeko helburuarekin mentoring-programa batean parte-hartu dute, zeinetan laguntza eta prestakuntza jaso duten haien musika-proiektuak bultzatzeko eta sustatzeko.

Musika Bulegoak jaialdi enblematikoan parte hartu du, eta Musika Bulegoa saria eman dio hautatutako 12 bandetako bati. Saria 1.000 eurokoa da, eta Kultura Live elkarteko kide den areto batean jotzeko aukera ematen du. 2024ko edizioan, SAD. (Sistemak Arriskutsuak Dira) talde saritua izan da, eta Bilboko Kafe Antzokia izan da haien zuzeneko eskaini duen aretoa, zeinetara 250 pertsona inguru joan diren.



04.

KOMUNIKAZIOA

2024a inflexio-puntua izan da Musika Bulegoaren komunikazio-estrategian. 2023ko amaieran, Plan Estrategikoaren esparruan egindako diagnostikoaren ondoren, Komunikazio Saila sortu zen. Nahitaezko urratsa erakundearen barneko zein kanpoko komunikazio-estrategia modu eraginkorragoan diseinatzeko, zuzendaritzarekin koordinatuta. Elkartearen ikusgarritasuna indartu eta Euskal Herriko musikaren sektorearekin elkarriketa konstanteagoa ezarri.

Bultzada berri hori Komunikazio Plan baten lanketa eta ezarpenarekin gauzatu zen, The Niu agentziarekin batera garatutakoa, datozen urteetako ildo estrategikoak zehaztu dituen. Planari esker, funtsezko proiektuak abiarazi ahal izan dira, hala nola ikus-identitatearen eta webgunearen berritzea, eta Musika Bulegoaren ekintzen eragina neurtzeko ebaluazio-sistema zorrotzago batean aurrera egitea.



04.1

2024AN BULTZATUTAKO PROIEKTU NAGUSIAK

Komunikazio plana

Diagnostiko-prozesu bat barne hartu da, sektoreko 25 eragileri egindako elkarrizketekin eta erakundeko Zuzendaritza Batzordeari egindako galdetegiekin. Lan horri esker, beharrak identifikatu eta estrategiak zehaztu ahal izan dira Musika Bulegoaren posizionamendua indartzeko. Jasotako azken dokumentuak, uztailan bildutakoa, datozen urteetarako ibilbide-orria ezartzen du.

Marka eta web-orri berria

Komunikazio-planean jasotzen den bezala, beharrezkoa ikusi da erakundearen irudi korporatiboa berritzea, eta, beraz, baita kanal nagusietako batena ere, web-orriarena. Proiektu estrategiko horiek 2025aren hasieran aurkeztuko dira ofizialki, Musika Bulegoaren 10. urteurrenarekin bat etorritz.

Musika-sektorearen ikerketa

Kulturaren Euskal Behatokiarekin lankidetzan, sektoreko eragileen, erronken eta aukeren azterlan sakona egin da. Ikerketak oinarri sendoa emango du etorkizuneko plangintzarako. 2025eko lehen hiruhilekoan jendaurrean aurkeztea aurreikusten da.

Ebaluazio sistema

Xede-audientzia hobeto ezagutzearen helburuarekin metodo eta tresna berriak ezartzen hasi gara, erabiltzaileen asistentzia eta iritzia modu eraginkorragoan jasotzea ahalbidetzen dituztenak. Datu horiei esker, jardueren eskaintza egokitu ahal izango da, bai eta haien eragina handitu ere.



04.2

ONLINE KOMUNIKAZIOA

Komunikazio digitala urteko lehentasun nagusietako bat izan da. Sare sozialen erabilera indartu da, ikus-entzunezko edukiak hobetu dira eta profesionalentzako kanal espezializatu berriak sortu dira.

SARE SOZIALAK

 Facebook

1.552 (+0,52%)

 Twitter/X

1.407 (+0,49%)

 Instagram

2.477 (+21,3%)

 YouTube

93 (+12,05%)

Newsletter/Berripapera

52 bidalketa egin dira guztira: **33** bazkideen datu-basera (**759 kontaktu**), **9** sektorerako oro har (**810 kontaktu**) eta **10** komunikabideetara (**114 kontaktu**). Batez besteko irekiera-tasa **% 48**koa izan da bazkideei eta sektoreari zuzendutako newsletterren kasuan, eta **% 60**koa komunikabideen kasuan.

 LinkedIn

148 (+ 208,33%)

NEWSLETTER HUB

Buletin profesional berri bat atera da, Sympathy for the Lawyer erakundearekin lankidetzan, lege-, zerga- eta kontratu-gaiei buruzko informazio espezializatua eskaintzen duena. Kanal horrek indartu egiten du Musika Bulegoak sektoreko profesionalentzat erreferente izaten betetzen duen rola. Zehazki, **5** newsletter bidali zaizkie bazkideei (**759 kontaktu**), batez besteko irekiera-tasa **% 35**eko delarik.

PRESENTZIA BIME 2024EN

Azokaren hiru egunetan zehar komunikazio digitala indartu egin da; reels, elkarrizketa eta zuzeneko argitalpenen bidez. Horrek, ikusgarritasuna handitzea eta sektorearekin etengabeko elkarrizketa sortzea ahalbidetu du.

04.3

OFFLINE KOMUNIKAZIOA

Komunikazio tradizionala funtsezkoa izaten jarraitu du Musika Bulegoaren marka indartzeko eta elkartearen jardueren hedapena bermatzeko, bai komunikabide orokorretan, bai espezializatueta. Hauek izan dira mugarri nagusiak:

HITZARMEN ESTRATEGIKOAK

2024an, lankidetzak-hitzarmenak sinatu dira EITB, Grupo Noticias eta Berria hedabideekin. Akordio horiei esker, tarifa lehiakorragoak lortu dira, hedabide horietan Musika Bulegoak eta sektoreak duen presentzia areagotu duten edukiak sortu dira, eta lankidetzak-formula berriak aztertu dira.

PRENTSA-OHARRAK

Urteko mugarri nagusiei buruzko jakinarazpenak bidali dira, hala nola Sektorearen Urteko Balantzea, LGTBIQ+ jardunaldiak, Berdintasun Gida Musikaren Sektorean, Musika Bulegoa Sariak eta Musikaren Europako Eguna.

ELKARRIZKETAK ETA AGERPENAK

Urtean zehar, Musika Bulegoko arduradunek **23** elkarrizketatan parte hartu dute telebistan, irratan eta prentsan (EITB, Bizkaia Irratia, Radio Euskadi, TVE, Deia, besteak beste). Horrek komunikabide nagusietan presentzia egonkorra izatea bermatu du. Radio Euskadirekin egindako hitzarmen bati esker, **9** elkarrizketa egin dira hedabidean, eta **43** musika-gomendio eman zaizkio EITB Kultura Flash-i.



04.4

ERAGINAK KOMUNIKABIDEETAN

2024an zehar *clipping* eta komunikabideen jarraipen sistema bat ezartzen hasi gara, komunikazio-ekintzen inpaktua zehatzago neurtzeko helburuarekin. Sistema hasierako fasean badago ere, zenbait proiektutan emaitza esanguratsuak erregistratu dira:

PROIEKTUA	INPAKTU KOPURUA	HEDABIDE MOTA
Musika Bulegoa Sariak 2024	12	EITB, Deia, Europapress, Mondo Sonoro, Gaztezulo, Bizkaie...
DA PRO 2024	5	EITB, El Correo, Kulturklik, Hitza...
Musikaren Eguna / Día Europeo de la Música	4	El Correo, Europapress, Kulturklik, Gobierno Vasco
Oreka TX & La Marimba - BIME Bogotá	1	Diario Vasco
Iparhots proiektua	1	Diario Vasco

Guztira, **20** inpaktu baino gehiago erregistratu dira prentsa idatzian, digitalean eta ikus-entzunezkoetan, eta presentzia berezia izan dute komunikabide autonomikoetan (EITB, Deia, Berria, El Correo) eta kulturaletan (Ortzadar, Kulturklik, Gaztezulo, Mondo Sonoro).

Horri gehitu behar zaio aurreko atalean jasotako irrati eta telebistako elkarrizketek sortutako estaldura. Elkarrizketa horiek sendotu egiten dute Musika Bulegoak Euskadiko musika-sektorearen erreferente gisa duen agerikotasuna.

04.5

PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

2024an, online kanpaina espezifikoak abiarazi dira, eta ekitaldia zehatzak indartzeko irrati-iragarki eta iragarki-txertaketak egin dira ere:

LGTBIQ+ jardunaldiak



BIME 2024



Antolatutako kontzertuak (Montana, La Furia, EZEZEZ)

Musika Bulegoa Sariak



(Ikuslearen Sariaren kanpaina barne)

Musikaren Europako Eguna



04.6

EDUKIA ETA ARGITAPENAK

Maiatzean, 2023ko Musikaren Urtekaria aurkeztu zen, zortzigarren edizioa. Argitalpenak (68 orrialde) hogeiretako erreportaje, elkarrizketa eta iritzi-artikulu baino gehiago biltzen ditu, non garrantzizko gaiak jorratzen diren. Hala nola kontzertu-aretoen egoera, artistaren estatutua, profesionalen osasun mentala, adimen artifizialaren eragina edo Euskadiko Orkestraren konpromiso soziala.



AURKIBIDEA

Bakarlarien bide berriak	38-39
Reforma laboral en la industria de la música	40-43
Gor disketearen mugariak	44-46
Música y compromiso social	14-15
Musika Bulegoa Sariak	16
Erresidentzia artistikoak Villasound Bilbao	18-20
Etorkizuna Euskal Herriko Musika Sektorean	04-05
Convenio colectivo del sector	22-23
Jonan Ordorika	06-07
Conciertos de gran formato	24-25
Musika aretoak kili-kolo	08-10
Osasun mentala musikaren industrian	27-30
Basque. Music. Road Map 2023	12-13
Festival New World Music Days en Sudáfrica	34-35
LGTBIQ+ kolektiboa eta Euskal Musika	56-57
Encuentros profesionales de Musika Bulegoa	58-59
Euskal abesbatzak: non eta nora	60-61
¿El último año en que los seres humanos dominamos la escena musical?	48-49
Periferiako kontzertu aretoak	50-53
15 años de Sigma Project	54

04.7

ONDORIOAK ETA ERRONKAK

2024ak Musika Bulegoa finkatu du Euskal Herriko musika sektoreko komunikazioko ezinbesteko eragile modura. Aurrera egin da edukien profesionalizazioan, ikusgarritasunean eta ekoizpenean.

Lortutakoa

Komunikazio Saila eta Plan Estrategikoa sortzea.

Sare sozialetan hazkundera, Instagramen protagonismo bereziarekin.

HUB Newsletter abiaraztea.

Komunikabideetan presentzia handitzea eta akordio estrategikoak.

Erronkak

Gure eskaintza eta gehitzen dugun balioa hobeto helaraztea.

Gure bazkideengandik eta, oro har, sektoretik hurbilago egotea.

Gure markari ikusgarritasun eta indar handiagoa ematea.

Hedabideetan estaldura organikoa handitzen jarraitzea, publizitate-inbertsioarekiko mendekotasuna murriztuz.

Sektorearen azterketa zabaltzea eta ekintza berriak diseinatzeko probetxatzea.

05.

KUDEAKETA

Elkartearen kudeaketa orokorrari dagokionez, Zuzendaritza Batzordea arduratu da, Gerentziarekin lankidetzan eta koordinatuta, elkartearen gidaritzaz. Aurrerago azalduko dugun bezala, aldaketa handiko urtea izan da, oinarri berriak finkatu ahal izan dira erakundearen eta proiektuaren ibilbidean inflexio-puntua markatzeko.

Erakundearen kultura korporatiboaren ikuspegitik, urtearen hasieratik lanean aritu da elkartea, balioak birdefinituz, arau berriak garatuz eta erakundearentzat sistema berri bat finkatuz. Prozesu hori guztia Gerentziak eta Zuzendaritza Batzordeak gidatu dute, baina nabarmendu behar da prozesu parte-hartzailea izan dela, eta lantaldeak ere rol protagonista izan duela.

Lantaldeari helduz, 2024 aldaketa handiko eta trantsizio urtea izan da. 2023ko udazkenean, gerentzia berria sartu zenean, taldearen egoeraren diagnostikoa egin zen, eta Zuzendaritza Batzordearekin batera antolaketa-eredu berri bat diseinatu eta adostu zen, barne-funtzionamendua eta emaitzak hobetzeko, musikaren sektorea une oro erdigunean jarritz, haren beharrei erantzuteko ahalik eta eraginkortasun handiena lortzeko. Eredu berri horren ondorioz, hiru sail eratu dira, hurrengo atalean xehetasun handiagoz azalduko direnak.

Urtean zehar, barneko lan-tresna eta -metodologia berriak diseinatu dira, lan-fluxuak modu eraginkorragoan optimizatzeko eta egindako lanaren kalitatea hobetzeko.

Bestalde, eraldaketa digitalaren arloan urrats garrantzitsuak eman dira. Urteko bigarren seihilekoan ERP-CRM bat garatu da, 2025eko urtarrilean ezarriko dena. Erakundearen beharretara egokitutako software berri honek, besteak beste, prozesuak automatizatzea, datuak denbora errealean izatea, lanaren kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzea eta lantaldearen lana gehiago bateratzea lortuko du, pertsona guztiek programa bera erabiliko baitute.

Urtearen hasieran, 2022an hasitako 2023-25 Plan Estrategikoa amaitutzat eman zen. Oro har, bertan ezarritako helburuak bete dira, eta amaitu ez direnak lortzeko bidean daude. Beste plan batzuei dagokienez, 2024an erakundearen lehen jasangarritasun plana lantzen hasi zela nabarmendu behar da, eta 2025erako berdintasun eta euskara planak lantzen hasteko oinarriak finkatu ziren.

Azkenik, maila ekonomikoan azpimarratu behar da bigarren urtez jarraian 600.000 €-tik gorako aurrekontua lortu duela elkarrekin. Hori, neurri batean, diru-sarreraren dibertsifikazioari esker gertatu da, bereziki babesletzatik eta dirulaguntzen deialdietatik eratorritakoei esker.

05.1

ANTOLAKETA ETA LANTALDEA

Funtzionamendua

2024a aldaketa handiko urtea izan da. Hasieran azaldu den bezala, Zuzendaritza Batzordea eta Gerentzia arduratu dira erakundea zuzentzeaz, betiere elkartearen Batzar Nagusiaren onespenerekin; izan ere, organo goren horretan onartzen da egindako jarduera, eta gutxienez urtean behin biltzen da. Lan ohikoenak hauek izan dira: plangintza orokorra, barne-hausnarketa eta -komunikazioa, erakundeekiko eta eragileekiko elkarriketa eta harremanak, urteko plan operatiboaren jarraipena eta baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen ikuskapena.

Sarreran aipatu bezala, urtean zehar kultura korporatiboa lantzen aritu da elkartea. Horrek, halaber, sistema eta funtzionamendu-eredu berri baten beharra ekarri du. Horren helburu nagusia erakundearen eraginkortasuna hobetzea izan da, bai eta funtzioak eta erabaki-esparruak ondo definitzea eta partaidetza-maila handitzea ere.

Azken puntu horri dagokionez, eta berrikuntza gisa, Musika Bulegoko bazkide zuzenak eta ordezkariak handia duten lau elkarteetako zuzeneko bazkideek soilik parte hartu ahal izango duten batzordeak sortzea erabaki da. Hiru helburu izango dituzte:

- Pertsona eta erakunde bazkideen parte-hartzea bultzatzea.
- Beren iritziak eta balorazioak jasotzea.
- Elkartearen eskaintzaren berri ematea.

2025. urtean zehar martxa jartzea aurreikusten da.

Bestalde, ERP-CRM berri bat garatu da, eta mugarrizko izango da erakundearen barruan eraldaketa digitalaren arloan, ezaugarri horiek dituen software bat erabiliko den lehen aldia baita. 2025eko urtarrilean ezartzea aurreikusita dago. CRM salmenten, marketinaren, bezeroarentzako arretaren eta harremanetarako puntu guztien kudeaketa integratua da. ERPri dagokionez, enpresa batean lan egiteko garrantzitsuak diren negozio-prozesu guztiak biltzen ditu: finantzak, giza baliabideak, ekoizpena, hornikuntza katea, zerbitzuak, erosketak eta gainerakoak. Funtsean, ERPk prozesu horiek guztiak sistema integratu batean eraginkortasunez kudeatzen laguntzen du. Software hori ODOOren bidez kudeatuko da eta enpresa bat kontratatu da hura elkartearen beharretara egokitzeko.

Azkenik, aipatu behar da urteko lehen seihilekoan bereziki lan egin dela Datuen Babesari buruzko indarreko plana eta Osasunaren Zaintzarako Plana berrikusten eta egokitzen.



Lantaldea

2024. urtea trantsizio-urtea izan da, lantaldean antolaketa-eredu berri bat ezarri delako funtzionamendua eta emaitzak hobetzeko, eta lantaldea eredu horretara egokitzen aritu delako.

Era berean, lanpostu bakoitzaren funtzioak eta erantzukizunak birdefinitu dira, eredu berriak eskatzen dituen premia berrietara egokituz. Urtean zehar lantaldean aldaketak egon dira, langile berriak sartu baitira. Hautaketak deialdi publikoen bidez egin dira, eta hori behin betiko irizpidetzat hartu da etorkizunean egon litezkeen eta izaera mugagabea izango luketen lanpostuen deialdietan.

Halaber, urtean zehar kudeaketarako tresna berriak ezarri dira lantaldeak eraginkortasun maila altuagoa lortu dezan. Garrantzi handia

eman zaio metodologia komun baten garapenari bereziki proiektuen eta zerbitzuen diseinuari eta ebaluazioari dagokienez. Horrek guztiak modu bateratuagoan lan egitea ahalbidetzen du. Aldi berean, lantaldeak prestakuntza jaso du hainbat arlotan, ezagutza hobetzeko eta garapen profesionala bultzatzeko.

Amaitzeko, 2025eko udazkenean, lantaldea garatzeko prozesua hasi zen. Gerentziak gidatuta eta gaian aditua den profesional baten aholkularitzarekin, taldearen kohesioa areagotu nahi da, eta, batez ere, taldearen garapen osoa bultzatu. Horrek guztiak eragin onuragarria izango du hura osatzen duten pertsonen ongizatean, lantaldearen indartzean eta, ondorioz, emaitzetan. Prozesua 2025eko lehen erdian amaitzeko aurreikuspena dago.

05.2

BITARTEKARITZA

Musika Bulegoa aurreko urteetan bezala aritu da musikaren sektorearen eta erakunde publikoen arteko bitartekaritza lanetan.

Helburu nagusia musikaren sektoretik elkartera iristen diren kezken eta arazoen berri ematea da, haien interesak defendatzea eta, hala eskatzen zaionean, sektorea ordezkatzeko. Era berean, sektorearen helburuetarako eta Elkartearen helburuetarako interesgarriak izan daitezkeen eragileekiko harremanak bultzatzen dira.

Urtean zehar 18 bilera egin dira herri-administrazioetako ordezkariekin eta interes estrategikoko eragileekin. Horietako asko administrazio publikoekin egin dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira Arabako eta Gipuzkoako aldundiekin zerga-pizgarrien gaiari

buruz burututakoak. Bilera horien bidez, 2024an indarrean sartu ziren arau berriek sektorearentzat operatiboagoak eta onuragarriagoak izateko lanak egin dira.

Komunikazioaren atalean azaldu den bezala, 2024an, Kulturaren Euskal Behatokiarekin lankidetzan, euskal musikaren sektorearen azterketa gauzatu zen. Musika Bulegoak aldean arteko bitartekaritza-lana ere egin zuen, alde batetik, estudioaren diseinuan, eta bestetik, sektorearen zati bat hura burutzeko sasatzen.



05.3

PLANAK

Plan estrategikoa

2024ko urtarrilean amaitutzat eman zen 2022an hasitako prozesua, eta 2023-2025 aldirako plan estrategikoa onartu zen, nahiz eta adierazi behar den helburu batzuk 2023an hasi zirela lantzen. Jarraian, 2024rako aurreikusitako helburuen aginte-taula laburtuaren txostena aurkezten da.

LERROA		HELBURUA	EPEA	BIDEAN	AMAITUTA
EHMBEREN ANTOLAKETA-SISTEMA	2	EHMBEren antolaketa-egitura eta eredu operatiboa berrikusi dituen azterlan bat edukitzea	2024/06		
	4	EHMBEren osaerari buruzko hausnarketari ekitea eta Elkartearen erregulazioa eguneratzeko aukerari ekitea [Estatutuak;bazkideak;...]	2024/12		
SEKTOREARI ZERBITZUAK EMATEA	5	EHMBEk 2024-2025 aldian jorratu beharreko Elkartekidearentzako zerbitzuak dibertsifikatzeko plan bat izatea, kideen artean hautemandako beharrak eta lehentasunak jasoko dituen.	2024/12		
	7	Artistaren Estatutuak Euskadiko sektorean dituen ondorioei buruzko azterlan bat burutzea.	2024/12		
ERAKUNDE PUBLIKOekin HARREMANA	8	Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta EHMBEren arteko harremana arautzeko akordioa egitea.	2024/05		
KOMUNIKAZIOA	10	EHMBEren Komunikazio Plana berrikustea.	2024/03		
	11	EHMBEren Komunikazio Plan eguneratua izatea, Plan Estrategikoaren beharrei erantzungo diona eta komunikazioari barruko eta kanpoko ikuspegi bikoitzetik helduko diona.	2024/12		
SUSTAPENA ETA KANPO ZABALKUNDEA	18	Euskal Herriko musikaren sektorea sustatzeko egungo eredu berrikustea, batez ere nazioartean, egindako ahaleginak optimizatzeko eta maximizatzeko.	2024/12		
	19	Euskal Herriko musika sustatzea EHMBEren jardura muineko ildo izaten jarraitzea, gure inguruko beste erakunde batzuekin lankidetzan.	2024/12		

Amaitu ez diren eta prozesuan dauden helburuei dagokionez, honako ohar hauek gehitzen dira:

- **4. helburua:** Zuzendaritza Batzordea urte osoan zehar lanean aritu da eta erabaki batzuk hartu dira, baina horren konplexutasuna dela eta, 2025ean zehar lanean jarraituko da prozesua urte horretan amaitzeko asmoarekin.
- **5. helburua:** Oraingo ekitaldian, erakundeen eskaintzari eta beharризanei buruzko azterketa labur bat egin da. 2025ean azterketa sakonago bat burutuko da eta posible diren lankidetzak aztertuko dira. 2025etik aurrera, komunikazio-sailaren zuzendaritzapean, elkarteko hainbat kan ezberdinen bitartez harreman iraunkorra eta zuzena ezarriko da sektorearekin, haren beharrak eta interesak identifikatzeko eta modu horretan proiektuen eta zerbitzuen eskaintza sektorerara egokitu ahal izateko.
- **8. helburua:** kanpo-aholkularitza kontratatu da Eusko Jaurlaritzari bidali zaion proposamena lantzeko. Erantzunaren zain.
- **18. helburua:** lantaldeak metodologia berria garatu eta ezarri du, eta nazioartekotze-proiektuak ere barne hartu ditu. Helburuak eta horien adierazleak zehazteko lan handiagoa egiten ari gara, emaitza hobeak lortzeko ekintzak diseinatzuz.

Azkenik, zazpigarren helburuari dagokionez, esan behar da ez dela azterketarik egin Gaian aditua den enpresa bati ikerketa bat burutzea eskatu zaio, ondoren Elkartearen kanal ezberdinetatik partekatzeke.

Bestelako planak

Elkartea konprometituta dago hainbat arlotan erakundea hobetzea sustatuko duten planak ezartzearekin. 2024an, Eusko Jaurlaritzak sektorearentzako jasangarritasunaren lehen gida egin zuen, eta Musika Bulegoak bere lehen jasangarritasun-plana bultzatzeko erabakia hartu zuen, epe ertain eta luzera modu arduratsuagoan jarduteko, ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-onurak bultzatuz eta sektorearen barruan kontzientziazio-maila handitu dezakeen erreferente bihurtzen saiatuz. Arlo horretan aditua den kanpoko enpresa bat kontratatu da hori egiteko. 2025ean zehar egongo da amaituta.


Era berean, datorren urtean garatzea espero den berdintasun-plana lantzen hasi da. Urte hasieran berdintasun-dekalogo bat egin zen lehen urrats gisa. Aipatu behar da elkarteak martxoaren 8an berdintasunaren arloan musika sektore osoari zuzendutako gida bat argitaratu zuela, sektorea kontzientziazten jarraitzeko eta arlo horretan hobetzeko.

Azkenik, urte amaieran erabaki da hurrengo urtean euskara plan batean edo antzeko zerbaitetan lanean hasiko direla, gaur egun ez baitauka ezer horri buruz.

05.4

AURREKONTUAREN EXEKUZIOA

Jarraian, 2024. urteari dagokion emaitza ekonomikoaren xehetasuna erakusten da. Azpimarratu behar da Elkarateak gardentasunaren aldeko apustu sendoa egiten duela, eta elkarateak jatorri publikoko diruaren ehuneko handi bat kudeatzen duenez, erakundearen kontuak urtero kanpoko eragile batek ikuskatzen dituela bere jarduera betetzen dela egiaztatzeko.



2024ko AURREKONTUAREN EXEKUZIOA

DIRU IRTEERAK			
KODEA	PARTIDA	KOPURUA	%
0 BLOKEA	GIZA BALIABIDEAK / BARNE FUNTZIONAMENDUA		
DI-0.1	Langile gastuak (soldatak + gizarte segurantzak)	246.163,16 €	40,61
DI-0.2	Azpiegitura	14.178,70 €	2,34
GUZTIRA 0 BLOKEA		260.341,86 €	42,95
I. BLOKEA	ELKARTEAREN FUNTZIONAMENDURAKO GASTU OROKORRAK		
DI-1.1	Finantza gastuak, aholkularitza eta aseguruak	14.294,57 €	2,36
DI-1.2	Egitura gastuak	28.657,60 €	4,73
DI-1.3	Dirulaguntzen kudeaketa	1.210,00 €	0,20
GUZTIRA I. BLOKEA		44.162,17 €	7,29
II. BLOKEA	KOMUNIKAZIOA		
DI-2.1	Komunikazio plana	36.197,81 €	5,97
DI-2.2	Komunikazioa (ekintzak, web mantenua, marketina, diseinua..)	31.215,15 €	5,15
DI-2.3	Publizitatea	7.545,65 €	1,24
DI-2.4	Musika Bulegoa' urtekaria 2023	11.260,73 €	1,86
GUZTIRA II. BLOKEA		86.219,34 €	14,22
III. BLOKEA	PROIEKTUAK ETA ZERBITZUAK		
DI-3.1	Etengabeko hobekuntza	21.902,80 €	3,61
DI-3.2	Aukera berriak	75.834,65 €	12,51
DI-3.3	Jarduerak	115.429,35 €	19,04
GUZTIRA III. BLOKEA		213.166,80 €	35,17
IV. BLOKEA	ERREMESAK/BESTE BATZUK		
DI-4.1	Beste batzuk	2.247,50 €	0,37
GUZTIRA IV. BLOKEA		2.247,50 €	0,37
GUZTIRA DIRU IRTEERAK		606.137,67 €	
DIRU SARRERAK			
DS-1	Eusko Jaurlaritzaren izenduna	486.000,00 €	80,18
DS-2	Bestelako dirulaguntzak	25.800,00 €	4,26
DS-3	Bazkideen kuotak	5.220,00 €	0,86
DS-4	Babesletza	27.389,00 €	4,52
DS-5	Funts propioak 2023	60.931,14 €	10,05
DS-6	Bestelkoak	797,53 €	0,13
GUZTIRA DIRU SARRERAK		606.137,67 €	

2024 MEMORIA

MUSIKA
BULEGUA

Batzen
gaituena.